# LEZO 11 INKESTA

LEZO ALDIZKARIAren 5. urtebetetzea zela eta irakurleek aldizkariaz zuten iritzia ezagutzeko galdetegi bat sartu genuen Aldizkariaren azken alean eta erantzunak jasotzeko kutxa mordoxka zabaldu genuen herriko elkarte, denda eta tabernetan.

Bi hilabeteko epea utzi genuen inkestak jasotzeko eta epe horren ondoren lau (4) erantzun besterik ez genuen esku artean. Honen arrazoiaz geure buruari galde egitean arrazoi bat baino gehiago aurkitu genuen baina ez dugu uste horretan hastea merezi duenik, batez ere, zuk zerorrek, irakurle, guk geuk baino hobeto ezagutzen dituzulako. Guretzat hemen gauza bat baino ez da gertatu, inkesta lau lagunek bakarrik erantzun dutela, besterik ez.

Jasotako lau erantzun horiekin ez dugu inolako estatistikarik egingo baina hauetako bat edo bestean egiten diren zenbait ohar argitu nahi genuke. Euskara «gehiegi» dagoela (datu pozgarria da Lezoko idazle gehienek gaur egun euskaraz idaztea orain dela gutxi arte «gehiengoaren» izenean zapalduak eta zigortuak izan baitira) eta euskaraz ez dakitenak edo euskaraz alfabetatu gabeak ez omen ditugu aintzakotzat hartzen. Bada aldizkariak «politizatua» dagoela esaten duenik ere. Hau dena dena erantzun bakarrez erantzun daiteke: Lezo Aldizkaria herriko idazleek guri bidaltzen dizkiguten lanen bilduma da, egileak aukeratzen du gaia, hizkuntza, azala eta mamia. Guk lan guztiak bildu eta txukun-txukun antolaturik inprentara eramaten dugu, eta ondoren zuen

# ENCUESTA LEZO 11

Aprovechando que la revista cumplía 5 años desde su nacimiento decidimos llevar a cabo una encuesta entre nuestros lectores mediante un cuestionario que aparecía en el número 11 de esta revista. Las respuestas podían depositarse en cualquiera de los buzones que repartimos entre locales sociales, comercios y bares.

Dos meses más tarde se cerraba el plazo para entregar las encuestas al cabo del cual recibimos cuatro (4) respuestas. No vamos a analizar aquí las causas de tan pobre respuesta, sobre todo cuando sois los propios lectores quienes mejor las conoceis. Para nosotros lo único que ha sucedido es que hemos recibido cuatro respuestas, nada más.

Esto hace ridículo entrar en el campo de las estadísticas pero sí que nos gustaría hacer ciertas puntualizaciones con respecto a algunas consideraciones que se hacen en alguna que otra encuesta. Se dice que hay «demasiado» euskara en la Revista (muestra de la buena salud de nuestros escritores perseguidos y criminalizados históricamente por quienes han impuesto su lengua y su cultura invocando mayorías) y que no se tiene en cuenta a quienes lo desconocen o no están alfabetizados en euskara, hay incluso quien considera que la revista está «politizada». Vamos a responder ambas cuestiones con la misma respuesta: la revista LEZO no es más que una colección de los trabajos que los escritores lezotarras nos envían. Es el propio escritor quien elige el tema y la lengua en la que va a escribir y nosotros no ha-

etxeetan banatu, besterik ez, beraz, Aldizkariaren nortasuna idazten dutenek eta idazten ez dutenek egiten dute.

Aldizkaria aurrera ateratzea erabaki genuenez geroztik (LEZO 7, 8, 9, 10, 11 eta 12) ekarri dizkiguten lan guztiak argitaratu ditugu ale batean ez bada bestean. Sinisturik gaude LEZO ALDIZKARI herri aldizkaria dela, beraz, orain arte bezala aurrerantzean ere lagundu nahi duten guztientzat zabalik ditugu ateak.

Eskerrik asko erantzuteagatik, zuen kezkak erantzun ditugulakoan gaude.

**LEZO ALDIZKARIA**

cemos más que clasificar esos trabajos y llevarlos a la imprenta para posteriormente repartirlos en cada uno de los buzones de Lezo. Nada más ni nada menos.

La revista la hacemos entre todos, tanto los que escriben como los que no. Desde que tomamos el compromiso de sacar adelante la revista (LEZO 7, 8, 9, 10, 11 y 12) se han publicado todos los trabajos que nos han llegado, sin excepción alguna. Creemos firmemente en el caracter popular y abierto de la revista LEZO en cual hay sitio para quien quiera colaborar.

Gracias por las respuestas recibidas, esperamos haber aclarado vuestras dudas.

**LEZO ALDIZKARIA**